

ITURRI KULTUR ETXEAREN ARAUBIDEA

ZIOEN AZALPENA

Elorriko Udalak, ekintza, zerbitzu eta instalazio kulturalen eta kirolekoen gaian toki-korporazioei atxikitako eskumen garapenerako eta ariketarako, Iturri Kultur Etxea sortzen du, Toki-Araubidearen oinarrien Erregulatzailerak, 7/1985 Legearen, apirilak 2, 25.2 m), 85.2 A) eta 85 bis artikuluetan ezarritakoaren arabera.

Etxe honen funtzionamendua arautzeko abiapuntutzat, Udalbatzak sustatutako ondoko ezaugarriak hartzen dira:

1. Iturri Kultur Etxea Elorriko ekintza kulturala garatzeko jabego publikoko eraikuntza da. Liburutegia, udal artxiboa, erakustaretoa, Areto Nagusia eta kultur taldeentzako eta 14.1 artikuluan jasotzen diren gainontzekoentzako lokalak dauzka.
2. Eraikinaren jabea Elorriko Udaletxea da.
3. Iturri Kultur Etxea baliabide komunitario bat da.
4. Kultur Etxeak eskaintzen dituen espazioak ahal bezain balioanitzak izan behar dute. Hau da, kirol, kultura eta aisialdi arloetako jardueratarako balio behar dute, nahiz eta esparruok elkarteei esleituta egon. Balioaniztasuna beharren arabera ezarriko da.
5. Zerbitzuen funtzionamendu egokia bermatuko da eta ekintzen garapenerako baliabide material eta tekniko hornituko da.
6. Alternatiba politikoetarako, etekin ekonomiko ateratzea duten ekintza pribatuatarako eta kontsumoaren sustapenerako ez da egoitzarik baimenduko.
7. Instalazioak errespetatzea eta onartutako ordutegiak betetzea ezinbestekoa izango da.

Oinarri honekin, Iturri Kultur Etxearen antolaketarako eta funtzionamendurako oinarri gisa, barne araudi hau aurkezten da. Araudi hau dokumentu juridiko- administratiboa eta barne arau multzoa da. Lehen aipatutako Toki Erregimen oinarrien Lege Erregulatzailerak eta Tokiko Erakundearen Antolaketaren, Funtzionamenduaren eta Erregimen Juridikoaren Araudiak (azaroaren 28ko, 2568/1986 Errege Dekretua) ezarritakoan oinarritzen da, Euskal Ondare Kulturalaren (EHAA, 06/08/1990), uztailak 3a, 7/1990 Legean, Euskadiko Liburutegi Antolaketaren sorketaren (EHAA, 20/05/1982), urtarrilak 11a, 90/1982 Dekretuan eta 1983ko maiatzaren 24ako Kultura eta Hezkuntza Sailaren Aginduan (honen arabera ezartzen dira Udal Liburutegi Publikoen eta Euskadiko Liburutegi Antolaketan (EHAA, 22/6/1983) integratutako Irakurketa Agentzien sorketarako arauak.

1. KAPITULUA- GAI OROKORRAK

1. Artikulua - Iturri Kultur Etxea.

Iturri Kultur Etxea (IKE) udal jabegoko komunitate-ekipamendu publikoa da eta bere helburua elorriarren topaketa, informazioa, komunikazioa eta produkzio kulturala sustatzea da eta bere formazio integrala eta elkarrekintza bultzatzea.

2. Artikulua - Iturri Kultur Etxearen ezaugarri nagusiak.

1- Leku publikoa izanik, horren ondoriozko berme hauek ezartzen dira:

- a) Bere izaera anitzaren babesa. Honek bertoko ekintza Elorrioko biztanle guztiei zuzenduta egotea derrigortzen du, eta ezin da inolako bereizkeriarik egin, jaiotza, arraza, sexu, erlijio, iritzi nahiz bestelako inguruabar edo egoera pertsonal zein sozialak aintzat hartuta.
 - b) Udal zerbitzuen funtzionamendua eta kudeaketa arautzen duten baldintzen menpe egotea.
- 2- IKE-ren gestioan elkarre erabiltzaileek parte hartzen dute, euren urteko ekitaldiak koordinatuz, beraien partaidetza programazioan, eskatzen zaienean Udalarekin lankidetzan aritzea edo ekitaldietarako proposamenak eginez, Araudi honetan aurreikusitako prozeduren bitartez eta gizonen eta emakumeen partaidetza orekatua sustatuz.
- 3- IKE-k inguruko gizarte-giroan barneratzea bilatuko du, giza-sarearekin harreman eta lankidetzan, horiek ere bere kudeaketan lotuz. Halaber, IKE-an egin daitezken izaera desberdineko ekintzen garapenaren bitartez, Elorrion euskeraren erabilera sustatzea nahi da. Horretarako Elorrioko Udalak helburu honekin ezarritako ordenantzak aplikagarriak izango dira.
- 4- Eskaintza zabala bilatzen denez eta interesgune guztietara heltzea, IKE-an ez dira programatuko jarraipen luzea izango duten edo betiko izango diren ikastaroak.

3. Artikulua- Helburua.

Araubide honen helburua IKE-aren instalazioak eta gainerako zerbitzuak erabili ahal izateko erabiltzaileen betebeharrak, baldintzak eta eskubideak erregulatzea da.

4. Artikulua- Aldaketak.

- 1- Araudi honen aldaketa, beharrezkoa denean, Udalaren Osoko Bilkurak onartuko du, ekipamendu kulturalaren erabilera egokia etengabekoa dela bermatzeko.
- 2- Araudi hau eta zerbitzu ezberdinen erabilera espezifikorako arauak eta beraien erabileraren prezio publikoak eta aplikagarritasuna, herriaren eskueran egongo dira.

5. Artikulua- Erabiltzaileak

- 1- Erabiltzaileak IKE-aren instalazioak, zerbitzuak eta programak erabiltzen dituzten pertsona guztiak dira. Erabiltzaileak banakakoak edo taldekakoak izan daitezke. Erabiltzaileek araudi hau eta erabiltzen dituzten edo parte hartzen duten prestazio edo zerbitzu bakoitzaren arauak ere bete behar dituzte.
- 2- Erabiltzaileek ondoko eskubideak dituzte:
 - a) IKE-aren ekintzei buruzko informazio nahikoa eta egitia jasotzea.
 - b) Ekintzen arduradunen, animatzaileen, kargu hautetsien eta IKE-aren gainerako partaideen aldetik tratu duina eta errespetuzkoa jasotzea.
 - c) Jasotako ekintza kalitate maila egokikoa izatea, egokiak diren materialak edukitzea eta alde zuzenetik jasotako informazioarekin bat datorrena izatea.
 - d) Beraien eskaerak eta kexak aintzat hartzea.
 - e) Araudi honek ezartzen duena eta legezko organoek hartutako gainerako arau eta akordio balioztatuak betetzen direlako bermea.
- 3- IKE-aren erabiltzaileen betebeharrak honako hauek dira:
 - a) Uneoro ekintzen arduradunenganako, animatzaileenganako, kargu hautetsienganako eta IKE-an parte hartzen duten gainerakoenganako tratu errespetutsua eta duina mantentzea eta gainerako erabiltzaileei merezi duten errespetua eman elkarbizitza onerako beharrezkoa den jarrera mantenduz.

b) Beraien ekintzen garapenerako instalazioak eta erabili ahal duten materiala zaintzea, egoera bikainean mantentzen saiatuz. Beraz, erabiltzaileen betebeharra izango da:

a. Instalazioak, zerbitzuak eta ekipamendua tratu eta erabilera egokiarekin erabiltzea. Arduragabekeriagatik edo apropos egindako edozein apurketa, ekintzaren arduradunak ordainduko du.

b. IKE-aren langileei funtzionamenduaren anomaliak, apurketak, akatsak edo araudi honetan ezarritakoaren ez betetzeak jakinaraztea.

c. Lokalean konpontze-lanak edo aldaketak egin ahal izateko, aurretik Udalaren baimen-idatzia behar izango da.

c) Langileriaren lana errazteko agindutako arau guztiak bete eta onartzea, horiek errespetatuz eta oharrak aintzat hartuz.

d) Lokala uzteko bilatzen den helburu kulturala zaintzea eta diru irabazirik ez bilatzea. Materialaren ekoizpenak edota tailer eta gela ezberdinetako sormenak ezin izango dute helburutzat eduki erabiltzaileen irabazia, ezta baimendutakoetatik aparteko erabilera ezberdinik ere. Baimendutako erabilera hauek izaera kulturala edo kultur eta kirol talde eta abarren ekintzetatik eratorriak izan behar dute.

e) Intimitatea errespetatu eta gordetzeko helburuarekin, argazki edo bideo makinen erabilera ez da baimentzen. Horretarako, instalazioaren arduradunei baimena eskatu behar izango zaie irudien helburua jakinarazteko.

f) Izena ematen duten ekintzen finantziatorako ezartzen diren prezioak ordaintzea.

g) Araudi honetan prestatutakoa eta legezko organoek hartutako gainerako arauak eta akordio balioztatuak betetzea.

6. Artikulua – Erantzukizun zibilaren aseguru.

Udalak Kultur Etxearentzako erantzukizun zibilaren aseguru bat dauka instalazioaren akatsengatik gertatu ahal diren istripuak babesteko.

7. Artikulua – Erabiltzaileen erreklamazioak eta iradokizunak.

Erabiltzaileen esku erreklamazio eta iradokizun orriak egongo dira. Edozein erabiltzailek orri hauek erabili ahal izango ditu zerbitzuen funtzionamendua hobetzeko iradokizunak egiteko. Orri honetan datu pertsonalak jarri beharko ditu erabiltzaile horrek eta erantzuna jasoko du.

8. Artikulua – Zehatzeko araubidea.

1. Araudi honetako 5.3 puntuan ezarritako arauen ez-betetzea zigorra merezi duen arau-haustea da.

Gertakariak IKE-aren langileari jakinaraziko zaizkio eta honek gertakarion berri emango dio alkatetzari honek dagokion zigorra jar dezan.

2. IKE-aren langileek jokabide egokia ez duten pertsonak ahoz ohartarazteko eta eraginaren edota zigorraren soluzioa lortu arte kautelazko neurri moduan instalazioetatik kanporatzeko ahalmena daukate.

3. Era hauetakoren batean zigortuko dira arauen ez-betetzeak:

a) Zigortutako lehenengo falta den kasuan arau orokorra izango den idatzizko ohartarazpena, bereziki kontrakoa aurreikusi ez den kasuetan izan ezik.

b) Erabiltzailearen eskubideen behin behineko gabetzea. Hau aplikagarria izango da erabiltzaileak lehenago ohartarazpen bat jaso duen ekintzen kasuetan, arrazoiak arrazoi. Halaber, behin behineko gabetze hau aplikagarria izango da prezio publikoen ordainketarako 5.3.f artikuluan

ezarritakoa betetzen ez bada. Erabiltzailearen eskubideen behin-behineko gabetze hau bukatu egiten da ordainketa hori egiten den momentuan.

- c) Erabiltzaileen eskubideen behin-betiko gabetzea. Hau aplikagarria izango da araudiaren 5.3.b. artikulua xedatzen duena urratzen denean gertatutakoan intentziona ikusten bada, eta 9.6 artikulua betetzen ez denean. Halaber, behin-betiko gabetze hau derrigorrez aplikatuko da erabiltzaileak bere betebeharrak betetzen ez dituenean, debekatuta dagoen ekintzaren bat egin duenean edo horrelako arrazoi batengatik eskubideen behin-behineko gabetze bat izan ostean haustea errepikatu denean.

4. Falta horiek ohartarazi egingo dira astungarri, aringarri edo erantzukizun salbukizun egoerak kontutan hartuz, Udaletik aurretik aipatutako ekintzetan erantzukizun penalak edo zibilak antzematen direnean, dagokien ekintza judizialak hartzea eragotzi gabe.
5. Apurketak, materialen, giltzen eta abarren galtzeak eta erabilera txarraren ondoriozko den edozein apurketak zigorgarriak izango dira aurretik aipatutako ohartarazpen-zehapen gain, ekonomikoki ere bai eta zigor ekonomiko hau eragindako kaltearen prezioa izango da.

9. Artikulua – Instalazioen erabilera.

1. Kultur Etxearen publikorako ordutegia goizeko 9etatik gaueko 10ak artekoa da, astelehenetik ostiralera. Zapatuetan, goizez, 9:30etatik 14.00etara irekiko da.
2. Espazio ezberdinen erabilera ezarritako ordutegietan ekintzetan, programetan eta zerbitzuetan parte-hartzen dutenena izango da edo kontratatzen dituztenena.
3. Etxea ixteko eta irekitzeko sistemak, ordutegi aldetik behar bereziak dituzten taldeei, posible egingo die haien egoitzak erabiltzea.
4. Erabiltzaileek publikoarentzat zabalik dagoen espazio bat izango dute eta bertan informazio mota guztiak, ekintzetarako izen emateak, instalazioen erreserbak eta gelen zabaltze eta ixteak zentralizatuko dira.
5. Lokalen erabilpen guztiak udal baimenpean daude.
6. Instalazioetan ezin da:
 - a. Kartel edo esku-orririk jarri udal baimen barik.
 - b. Baimen barik publizitatea ipini. Kasu guztietan alkohola edo tabakoa kontsumitzera bultzatzen duen publizitate guztia debekatuta dago eta baita ekintza politikoa edota sindikala suposatuta ahal duen publizitatea ere (atal honetan IKE-aren langileek beraien eskubide sindikalen onbidean egin dezaketena ez da kontuan hartzen)
 - c. Jan, kontrakoa baimentzen den zerbitzu edo ekintzetan izan ezik.
 - d. Telefono mugikorrik erabili, pasilloetan, bulego eta elkarteen geletan ezik.
 - e. Arau orokor moduan debekatuta dago instalazioetara animaliak sartzea. Arau horren salbuespena behar beharrezkoa denean edota egoera zehaztetan soilik izango da.

10. Artikulua – Dinamizazio ekintzen programa: Ikastaroak, tailerrak eta sustapen ekintzak.

1. IKE-ak eskarien edo Udalak estimatutako interes edo eskarien arabera izaera ezberdineko ekintzen programa garatuko du, biztanleria guztiarentzako, bazterkeria barik.

2. Ekintza bakoitzerako, bere izaeraren eta helburuen arabera, ondokoak finkatuko dira:
 - Kuotak, hala erabakitzen bada.
 - Epealdia, datak, ordutegia eta kokapena.
 - Gehieneko eta gutxieneko partaide kopurua.
 - Izen-emateko baldintzak.
 - Adinak.
 - Inskripzio-datuak (modua, lekua, egunak eta ordutegiak, eta abar...)
3. Ekintzetan partaidetza ez da behin-betikotzat hartuko Udalak konfirmatu arte. IKE-ak gestionatutako ekintza guztiak beraien garapenerako plaza-kopuru minimo bat eduki behar izango dute.
4. Ordainketa, betekizuna denean, Udalak esandako kontuan banku-helbiderapen bitartez egingo da edo zuzenean Udaletxearen beheko solairuan dagoen Udal Diruzaintzan eskudirutan.
5. Era berean, kalitatea zaintzeko asmotan, ezarritako plaza-kopurua ezin izango da gainditu. Ekintzen eskaria eskaintza baino handiagoa izanez gero parte-hartzeetan lehentasuna edukiko dute::
 - Elorrioren erroldatutakoek.
 - Ikastaroaren gaiarekin lotuta dauden elkarten bazkideak.
 - Emakume eta gizonen kopuruaren arteko oreka bilatuko da.
 - Intereseko ikusten diren beste irizpide batzuk.

Irizpide hauek guztiak aplikatuta ere, leku baino eskari gehiago balego, zozketa bidez erabakiko litzateke.

Dena dela, beste ikastaro bat antolatzeko pertsona kopuru nahiko eta interes handia egonez gero eta beste eragozpenik ez balego, aukera hori eskaintzen saiatuko da.

6. Prezio murriztuak edo bereziak lortuko ditu indarrean dagoen prezio publikoaren ordenantzak xedatzen duena betetzen duenak, eta horretarako izena ematerakoan egoera justifikatzen dituen agiriak aurkeztea ezinbestekoa izango da. Behin ekintza hasita, baja eman nahi duten erabiltzaileek, ekintzaren jarraipenaren arduraduna den udal funtzionarioari abisu eman beharko diote. Ekintza kuota bakarrekota bada, ez da dirua ez diru-zatia itzuliko. Ekintza zenbait kuotakoa baldin bada (hilekoa, hiruhilabetekoa...), ondoko kuotak ez dira kobratuko baja jakinarazten den unetik. Kuotaz gain matrikula ere ordaintzekoa bada, hau ez da itzuliko ez osorik ez zati bat.
7. Ekintzak beraien burutze egutegiaren arabera garatuko dira. Egutegi hauek ekintzak garatzen diren espazioetan beti agerian egongo dira.

11. Artikulua – Osagarritzko araudiak eta arauak.

IKE-aren zerbitzu bakoitzak honen osagarritzko araudi bat eduki ahal izango du. Osagarritzko araudi honek zerbitzu horren aspektu espezifikoa izango ditu.

12. Artikulua – Erreglamentazio hutsuneak.

Araudi honetan edo zerbitzuen arau espezifikoetan aurreikusten ez diren kasuak Elorrioko Udalaren Idazkaritza Orokorrak erabakiko ditu.

2. KAPITULUA. ITURRI KULTUR ETXEAREN ESPAZIOEN ERABILERRAKO ARAUAK.

13. Artikulua – Helburua.

Orokorrean eta ekipamendu komun honen erabilera sustatzeko eta giza errentagarritasuna lortzeko helburuarekin, osatzen duten espazio batzuk ondoko arauetan zehazten den moduan erreserbatu edo erabili ahal dira.

14. Artikulua – Jasotzaileak.

1. Udalaren erabilera eta programazioaz gain elkarrekin ekintzen garapenerako erreserbatzeko ezarritako espazioak, irabazmorik ez duten edo helburu kulturalak dituzten taldeek, elkarrekin eta erakundeek erabili ditzakete.
2. Enpresek edota norbanakoek ekintzen garapenerako espazioen erreserba eskatu ahal izango dute, Udalak beraien ekintza proposamenak giza interesekoak eta irabazi asmorik gabekoak direla ikusten duenean, dagozkien prezio publikoak ordainduz.

15. Artikulua – Bereizten diren espazioak.

Honakoak dira IKE-an bereizten diren espazioak

- Elkarrekin lokalak
- Erakusketa gela
- Dantza gela
- Eskulan gela
- Gaztetxea
- Udal liburutegia
- Kz gunea
- Areto Nagusia
- Bilera-gela

16. Artikulua – Elkarrekin lokalak.

Elkarrekin bakoitzarekin sinatuko den hitzarmenaren bitartez arautuko dira.

Bi motatako lokalak bereizten dira taldeen egoitzen artean:

- Talde batzuek ordutegi osoa okupatuko dute haien egoitza eta horrek baliantasuna kentzen dio.
- Ordutegi zehatza duten taldeek eta horrek lokalaren baliantasuna baimentzen du.

Balioanitzak diren lokalen erabilpen puntualak errespetatuko du beti taldearen jardueraren ordutegia eta lokaletan daukaten materiala. Taldeari informatuko zaio edozein beste jarduera antolatzean.

17. Artikulua – Erakusketa Gela.

1. Kultur Etxearen publikorako daukan ordutegi bera izango du
2. Antolatzen diren erakusketak herritarren ekimenerako hiru sasoi utziko ditu, hala nola, Gabonak, Ikasturte amaiera eta Ferixa Nausikoak.

3. Erakusketa gelaren dinamizazioa udaleko Kultur arloko arduradunen eta teknikarien ardura izango da. Talde honen lana Kultura, Kirola, Turismo eta Gazteria Informatibo Batzordean aurkeztuko da.

18. Artikulua – Dantza Gela eta Eskulan Gela.

1. Elkarteen Udal Erroldan izena eman duten elkarteek ikasturteko euren jardunerako erreserbatu ahal izango dute erreserbak egiteko jarritako prozeduraren arabera edo ekintza puntuala egiteko eskari-orri bitartez.
2. Erreserba egin nahi duen elkartearekin hitzarmena sinatuko du Udalak.

19. Artikulua – Gaztetxea.

1. Gaztetxea aisialdiko eta kultura arloko jarduerak egiteko espazio fisikoa da Elorrioko gazteentzat. Haiek antolatutako ekintzak egingo dira bertan.
2. Helburuak:
 - Gazteek elkarren arteko dinamikak eta harremanak sortu eta osatu ahal izateko esparrua izatea.
 - Gazteak antolaketa eta kudeaketa lanetan aritzea.
 - Herriko kultura dinamikan sartzeko eta parte hartzeko aukera ematea.
3. Gaztetxeak publikorako ordutegi berezia izango du ekintzen arabera.
4. Elkarteen Udal errolda izena eman duten elkarteek euren jardunerako erreserbatu ahal izango dute erreserbak egiteko jarritako prozeduraren arabera edo ekintza puntuala egiteko eskari-orri bitartez.
5. Erreserba egin nahi duen elkartearekin hitzarmena sinatuko du Udalak.

20. Artikulua – Elkarteen egoitzak.

Elkarte batek kultur etxea bere egoitza izateko udalarekin hitzarmena sinatu behar du. Udalak hitzarmena herriari zerbitzua eskaintzen dioten elkarteekin soilik sinatuko du.

21. Artikulua – Udal Liburutegia.

Udal liburutegiak araudi propioa izango du, edozeinentzat eskuragarri bertan egongo dena.

22. Artikulua – Kzgunea.

Bere araudi eta funtzionamendu dituen arren, Udalarekin koordinatu behar ditu bere ordutegi-egutegiak.

23. Artikulua – Alokatu ahal diren espazioak.

1. IKE-aren espazioen informazio eta erreserba guztiak publikoarentzako egokitutako espazio batean zentralizatuta egongo dira, non erreserbak ezarritako ereduaren arabera egingo diren, espazio honetan bertan edo faxez. Erreserba-eskariak ezin dira egin ez posta elektronikoz ez telefonoz.
2. Erabilera guztiak udalaren baimenaren menpe daude. Udalak, kalitatearen, helburuen edo udal politikaren arabera neurtuko du eskaera bakoitza eta bere egiten du ekitaldia egiteko baimena eman edo ukatzeko eskubidea.
3. Espazioen erabilerak udal eskuhartzearen menpeko dira. Eskuhartze honek, ezinbestekoa bada, erabiltzeko baimendutako ordutegia aldatu edo eten egin dezake erreklamazioa egiteko aukera barik. Hala ere, ahal denean, gai hori 48 ordu lehenago jakinaraziko da. Halaber, IKE-aren arduradunek instalazioak

erabiltzaileei eta publiko orokorrari ixteko eskubidea daukate, erabileran istripu-arrazoientatik arriskuren bat aurreikusten bada.

4. Era berean, behar izanez gero, baliogabetu ahal izango da espazioaren erabilera-baimena instalazioaren erabilera desegokitzat jotzen bada edo egiten diren ekintzak hasierako baimen-emate arrazoiekin bat ez datozelako
5. IKE-an egiten diren ekintza guztietan erabilera onaren arduradun bat egon behar du.
6. Eskatzailea adin nagusikoa izango da.
7. Instalazioen erabilera txarragatik edo arduragabekeriagatik sortutako apurketen konponketa edo birjarpena, erreserba egin duten erabiltzaile indibidualen edo taldekoen kontura izango da.
8. Prezio publikoen ordainketak ez ditu barne hartzen, hala adosten ez denetan behintzat, muntaketa lanak edo aparteko prestaketa lanak.
9. Erreserben arduradunek, salbuespenak salbuespen, beraien ekintzen garapenerako baliabide teknikoak, langileria eta materiala eduki beharko dituzte.
10. Kasu bakoitzean baimena Udalak ezarritako baldintzekin izango da.
11. Erabilera doakoa izango da Elkarteen Udal Erroldan izena eman duten elkarteentzat.

24. Artikulua – Guneen erabilera.

1. Leku bakoitzean erabilera libreko materiala baldin badago, erreserba egin duenak egin beharko ditu beharrezko traslado, batze eta gordetze-lanak, dagokion lekuan.
2. Elementu zehatzen erabilera, manei, muntaia edo garraiorako, Udalak izendatu ahal ditu lan horiek egin behar dituzten pertsona edo enpresak, helburu objektiboen arabera (ekintza hori burutzeko lehiaketa, esaterako). Lan horiek ekartzen dituzten diru-kostuak, erabiltzailearenak dira baina tarifak Udalak eta enpresa horrek duten hitzarmenaren arabera izan daitezke.
3. IKE-ak ez duen tresneria erabili behar izanez gero, espazioaren eskatzailea bere ezarketaren arduraduna izango da. Kasu guztietan, dagokion udal baimena beharko du.
4. IKE-an egiten diren ekintza guztietan tresneria egokia erabili beharko da. Tresneriak edo ekintzak berak, altzari edo ondasun higiezinaren egoera ezin izango dute aldatu. Gainera kontuan izan beharko dira instalazioaren edo tresneriaren erabilerari dagozkion arau espezifikoak.
5. Ekintzak instalaziotik aparteko tresneria erabiltzea ekartzen duen kasuetan, hau dagokion armairuetan, kajoietan edo ezarritako lekuetan bildu beharko du erabiltzaileak.
6. Erabilera ordutegia astelehenetik ostiralera 09:00etatik 22:00etara eta larunbatetan 9:30etatik 14:00etara izango da. Ordutegi horretatik kanpo, diru-arterkaritzak ezartzen dituen pertsonal gastuak ordaindu beharko dira.
7. Erabilera-baimena duen onuradunak ezin izango dio beraien erabilera beste inori utzi.

25. Artikulua – Erreserbak.

IKE-aren espazioak erabiltzeko bi era ezartzen dira:

- Denboraldiko erreserbak.
- Aurretiazko zuzeneko erreserbak.

1. Denboraldiko erreserbak gutxienez 8 hilabetez jarraian garatzen diren ekintzak egiteko da eta modu honetan erregulatuko dira:
 - a) Programatutako erreserbak egin ahal izango dituzte Elkartearen Udalerroldan izena emandako nahi duten elkarte eta Talde guztiek Etxearen programazioa oztopatzen ez duten egun eta orduetarako.
 - b) Erreserbetarako aurreikuspena, urtero, urtarrilean egingo da (eta memoriarekin eta urte berrirako prestatutako planifikazioarekin batera aurkeztuko da), eta erreserba bera, irailean egingo da ikasturtekoa izango delako, denboraldiko erreserbak irailean egingo direlako. Irailetik kanpora egiten diren erreserba-eskariei ez zaie erabilera bermatuko, beraz, aurretiazko zuzeneko erreserba-eskaera egin beharko dute.
 - c) Espazioaren erabilerako baimena Alkatearen Ebazpenarekin egingo da.
 - d) Espazio bat eskatzen dutenek Udalerroaren eskaera orri ofiziala bete beharko dute.
 - e) Denboraldiko erreserbak ez daude prezioetatik salbuetsita Araudi honetan bereziki ezarritako kasuetan izan ezik. Erabilera-baimena onartutakoan egingo da ordainketa.
 - f) Baimena ematen den momentutik aurrera, bere programazioan egindako aldaketan guztien berri IKE-aren gestioaren arduradunari eman beharko zaio. Halaber, erreserbaren onuradunak edozein arrazoiarengatik instalaziora joatea eten egin behar izanez gero, aldeztatik gertaera honen berri eman behar izango du.
 - g) Arrazoitu barik hilabete osoan zehar utzitako gela ez erabiltzeak, tasa ez ordaintzeak edo baimendutako programazioa ez betetzeak, erreserbaren eskubide guztien galera eragin dezake, egoera hau etorkizuneko baimenetan kontuan hartu delarik.
2. Aurretiazko erreserba zuzenen bitartez IKE-aren erabilgarri dauden instalazioak erabili daitezke, betiere Etxearen programazioko egutegian oztoporik ekartzen ez badute eta denboraldiko erreserba bitartez beteta ez badaude.
 - a) Funtzionamendu koadranteen ordu libre guztiak erreserben bidez erabili ahal izango dira. Erabilera ordu gehiengoa, eskaeraren arabera finkatuko du Udalerro.
 - b) Erabiltzaileek espazioa erabili baino lehen ordaindu beharko dute ezarritako prezioa.
 - c) Ekintzen abonamendua, ordaindu behar diren kasuan, Udalerro ezarritako kontuan banku-helbideratzearen bitartez eta zuzenean Udaletxearen beheko solairuan dagoen Udalerro Diruzaintzan eskudirutan egin ahal izango da. Akuraren zenbatekoa ez da itzuliko zentroak baliogabetzen duenean edo instalazioen egoera erabiltzeko modukoa ez denean izan ezik.

3. KAPITULUA – MATERIAL MAILEGUETARAKO ARAUAK

26. Artikulua – Mailegu zerbitzuaren helburua.

1. Zerbitzu honen helburuak, irabazasmorik ez duten herriko elkarte eta taldeei laguntza ematea da eta, udal baliabide materialak utziz, materiala erabiltzeko den ekintzak irabazizko helburua ez daukanean eta udal tresneria guztiaren erabilera

egokia bermatzea. Zerbitzu hau IKE-ari atxikitako udal langileriaren arduraren izango da.

2. Mailegu zerbitzuaren helburua urteko inbentario baten bitartez identifikatuko da. Inbentario hau horretarako ezarritako iragarki-taula batean egongo da jarrita publikoaren ikusgarri.

27. Artikulua – Ekintzak.

1. Materiala erabiliz egin nahi den ekintza herrian garatu beharko da.
2. Elkarrekin eta taldeak materiala erabili dezakete taldearentzako ekintzak garatzeko ere. Ezin izango da material hori erabili irabazizko izaera, izaera pertsonala edo pribatua duten ekintzetan.

28. Artikulua – Eskaria.

Mailegua eskatzeko idatzizko eskaera egin beharko da eskari-orria betez. Eskaera zehaztasunez beteko da, entitatearen izenean eskaria egiten duen pertsonaren datuak batez ere eta publikoarenganako harrera-lekuan emango da. Eskaerak faxaren bidez ere igorri ahal izango dira. Eskaera ekintza egin baino astebete lehenago behintzat egin beharko da.

29. Artikulua – Baimena.

1. Materialaren maileguak dagokion udal baimena eduki behar izango du eta beraz, Udalak bere egiten du materialaren mailegu-eskariaren onarpena edo ukapena egiteko eskubidea.
2. Lagapen epealdi gehiengoa mugatzeko eskubidea ere bere egiten du.
3. Erabilpen baimenaren egiaztatpena Udalak egoki deritzon bitartekoaz egingo da: idatzizkoa, posta elektronikoa edo telefono bidezkoa.

30. Artikulua – Fidantza eta prezioak.

1. Mailegu materiala erabili ahal izateko Udalak ezarritako prezioa eta fidantza ordaindu beharko dira.
2. Fidantzaren galera ondoko arrazoiek ekar dezakete:
 - a) Mailegutuan hartutako tresneria guztia edo zati bat itzuli ez delako edota tresneria hondatuta egoteagatik. Kasu hauetan konponketa edo birjarpen kostuak deskontatuko dira.
 - b) Udalak finkatutako epean itzuli ez delako, atzeratzeko oniritzia jaso barik.
3. Ezarritako fidantza Udalarekin hartutako zorra asetzeko nahikoa ez denean, eskatzaileek 10 eguneko epea izango dute ezarritako banku sarrera egiteko eta horrela zorra kitatzeko.
4. Eskatzaileek ezarritako datan tresneria hartzen ez badute eta beraien aldetik aldaketaren komunikaziorik baldin ez badago erreserba baliogabetuko da. Kasu hauetan ohartarazpena egingo zaio.
5. Prezioak unean indarrean dagoen udal prezioen ordenantzak finkatutakoak izango dira.

31. Artikulua – Tresneriaren biltzea eta itzulpena.

1. Eskatutako tresneriaren biltzea, itzultzea eta garraioa tresneria hori eskatzen duenari dagokio.
2. Behin mailegua baieztatuta eta dagokion prezio ordainduta, baimendutako tresneria Udalak esandako tokian eta egunean jasoko da.

3. Tresneria egoera egokian itzuliko da Udalak horretarako ezarritako egun-lekutan.
4. Tresneriaren apurketa-galeraren bat egonez gero, konponketatik edo berriro erosi beharretik datozen gastuak eskatzailearenak izango dira.
5. Itzulketa eta materialaren ikuskapena egin ondoren, banku-transferentzia bitartez fidantza itzuliko da.
6. Errentariak tresneriaren erabilera eta gozamenagatik erator daitekeen edozein erantzukizun zibil, judizial edo administratibo bereganatzen du.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Gelen alokairu prezioak araudi honen anexoan jasota daude eta anexo hau bera bakarrik onartu ahal izango da prezioen aldaketa egin nahi denean.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Araudi honek Bizkaiko Aldizkari Ofizialean 121 zenbakian, 2007ko ekainaren 20an argitaratu emandako Elorrioko Iturri Kultur Etxearen Erregelamendua indargabetzen du.

AZKEN XEDAPENA

Araudi hau bere testuaren publikazioa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean osorik agertzen deneko hurrengo egunetik hamabost egun igaro ondoren indarrean sartuko da.

ANEXO A

GELEN ALOKAIRURAKO PREZIOAK

	Bilera gela	Areto Nagusia	Gaztetxea	Erakusketa Aretoa
Elkarteen Udal Erroldan erroldatutako irabazasmorik gabeko elkarteak.	Doan	Doan	Doan	Doan
Kanpoko irabazasmorik gabeko talde edo elkarteak edo Udal Erroldan izena eman gabeko herrikoak.	10 €* 5 €**	30 €* 10 €**	30 €* 10 €**	30 € erabilpen edo eguneko
Bestelako entitateak.	15 €* 10 €**	50 €* 20 €**	50 €* 20 €**	50 € erabilpen edo eguneko
Fidantzak	--	50 €	50 €	30 €

* lehen ordua

** bigarren eta osteko orduak

GILTZEN MAILEGURAKO PREZIOAK

10 euroko fidantza kobratuko da mailegatzen den giltza bakoitzeko.

Urte amaieretan, prezioak berrikusiko dira eta, beharrezkoa izatekotan, eranskin moduan onartuko dira.